

2004KO MAIATZAREN 18KO **EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta lauko maiatzaren hemezortzian, arratsaldeko zortzietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Kepa Goenaga Alikostes, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga, Amagoia Naldaiz Mingo, Xabier Arrasate Aierbe eta Gorka Lamy Intsausti zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- 2004KO EKAINAREN 13KO HAUTESKUNDE MAHAIETARAKO MAHAIKIDEAK AUKERATZEKO ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Eguneko Gai Zerrendako puntu bakarrari ekiten zaio, 2004ko maiatzaren 13an egingo diren Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeak direla eta Hauteskunde Mahaietako partaideak aukeratzeko zozketari hain zuzen ere, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzen dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko bederatziak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.